BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ASOCIACION DE AMIGOS DEL ARTE - AMIARTE ERAKUNDEAREN ARTEAN, GIZARTE-BAZTERKETAKO EGOERAN EDO HORREN ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEI AMIARTE IZENEKO BALIABIDEAN ARRETA ESKAINTZEKO, HITZARMENA

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACION DE AMIGOS DEL ARTE -AMIARTE, PARA LA ATENCION A PERSONAS EN SITUACION DE EXCLUSION SOCIAL O RIESGO DE LA MISMA EN EL DIPOSITIVO DENOMINADO "AMIARTE".

HAUEK BILTZEN DIRA

SE REÚNEN

Alde batetik, **TERESA LAESPADA MARTÍNEZ** andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua, **Bizkaiko Foru Aldundiaren** izenean eta hura ordezkatuz, 2020ko abenduaren 15(e)ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez emandako eskumenekin bat eginez, eta

De una parte, **Dª TERESA LAESPADA MARTÍNEZ**, diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, en nombre y representación de la **Diputación Foral de Bizkaia**, actuando en virtud del poder otorgado mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 15 de diciembre de 2020, y

Bestetik, **MARIA BEGOÑA INCHAUSTEGUI DOMINGUEZ** andrea, **ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL ARTE-AMIARTE** erakundearen (IFK: ; helbidea: **GORDONIZ, 41** izenean eta haren ordezkari gisa, D. Carlos Ramos Villanueva notarioaren aurrean 2016ko ekainaren 16an egiletsitako ahalordea dela bide.

De otra, **DOÑA MARIA BEGOÑA INCHAUSTEGUI DOMINGUEZ**, en nombre y representación de **ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL ARTE-AMIARTE**, con número de identificación fiscal con domicilio a efectos del presente convenio en **GORDONIZ, 41** en virtud de poder otorgado con fecha 16 de junio de 2016 ante el notario D. Carlos Ramos Villanueva.

Biek hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa eta ordezkaritzan jarduteko ahalordea onartu dizkiote elkarri, eta elkar hartuta honako hau

Ambas personas se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la suscripción del presente convenio y, aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor dicen actuar, de común acuerdo

AZALTZEN DUTE

MANIFIESTAN

I.- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta

I.- Que el Departamento de Empleo,

Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizuna da berdintasuna, elkartasuna eta enplegua Bizkaiko gizartean bideratzeko politika publikoak bultzatzea, herritarrei zerbitzua emanez, hain zuzen, beren egoera pertsonalagatik edo sozialagatik edo familiaren egoeragatik bizitza duina eta osoa izateko zailtasunak dituztenei, betiere, arreta gunea gizartean baztertuta edo horretarako arriskuan daudenengan jarrita, besteak beste.

Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención, entre otras, en las personas en riesgo o situación de exclusión social.

Zehazki, Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, oro har, gizartean baztertuta edo arrisku horretan dauden pertsonei arreta emateko eginkizunak agindu zaizkio, haien bizi-kalitatea hobetzen eta gizarteratzea errazten duten beharrezko neurriak ezarrita.

En concreto, la Dirección General de Inclusión Social, tiene atribuidas con carácter general las funciones de atención a personas en situación de exclusión o riesgo de exclusión, estableciendo las medidas precisas que ayuden a mejorar su calidad de vida y favorezcan su inclusión social.

II.- Gizartean baztertuta dauden edo arrisku horretan dauden pertsonen arretari eta esku-hartzeari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean (aurrerantzean, *"12/2008 Legea"*, *"legea" edo "Gizarte Zerbitzuen Legea"*) daude zehaztuta arreta ereduaren ildo orokorrak, baita esku hartzeko oinarrizko prozedura ere. Lege horrek, era berean, arauak xedatzeko eskumena ematen die foru aldundiei gizarte zerbitzuaren arloko euren zerbitzuak antola ditzaten, horien artean gizartean baztertuta daudenen diagnostikoko kategoriari arreta emateari buruzkoak.

II.- Que. en lo que respecta a la atención e intervención con las personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma, las líneas generales del modelo de atención, así como del procedimiento básico de intervención, se detallan en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios (en adelante, *"Ley 12/2008"*, *"la ley" o "la ley de servicios sociales"*); dicha ley consagra asimismo la competencia reglamentaria de las diputaciones forales para la organización de sus propios servicios en materia de servicios sociales, entre ellos los relativos a la atención a la categoría diagnóstica en situación de exclusión social.

Lege horren 7. artikuluan gizarte zerbitzuen sistema arautuko duten abiaburu orokorrak zehaztu dira. Horko lehenengo atalean adierazten da gizarte zerbitzuen sistema botere publikoen erantzukizuna dela, eta botere publikoek bermatu beharko dituztela EAEko Gizarte Zerbitzuen eta Prestazioen Katalogoko prestazioak eta zerbitzuak eskuragarri eta jasotzeko moduan daudela (aurrerantzean, *"gizarte zerbitzuen katalogoa"* edo *"katalogoa"*).

Dicha ley, en su artículo 7 determina los principios generales por los que se regirá el sistema de servicios sociales, señalando en su apartado primero que dicho sistema es responsabilidad de los poderes públicos y que los mismos deberán garantizar la disponibilidad y acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales (en adelante, *"catálogo de servicios sociales"* o *"el catálogo"*).

Printzipio horrekin berarekin lotuta, eta botere publikoek zuzeneko kudeaketa publikoa bermatu beharko dieten prestazio motak ezarri ondoren, aipatutako legeak dio ezen, osagarri moduan, aurreikusi beharko dela, arau orokor gisa, kudeaketa publikoa eta gizarte ekimenaren bidezko kudeaketa lehenestea katalogo horretan jasotako zerbitzu eta prestazioen hornidurarako.

En relación a ese mismo principio, y después de establecer el tipo de prestaciones cuya gestión pública directa deberán garantizar los poderes públicos, la referida Ley señala que, complementariamente, deberá preverse, con carácter general, la prevalencia de la gestión pública y de la gestión a través de la iniciativa social en la provisión de los servicios y prestaciones previstos en dicho Catálogo.

Gizarte zerbitzuen sistemaren abiaburuetako batzuk unibertsaltasuna, berdintasuna eta ekitatea, hurbiltasuna, prebentzioa, gizarteratzea, normalizazioa, banako arreta eta arreta integrala, arretaren jarraitutasuna, esku-hartzeetan diziplina artekotasuna kontuan hartzea, herritarren parte hartzea eta kalitatea dira, eta, horiez gain, baita koordinazioa eta lankidetza ere. Horrenbestez, herri administrazioek euren artean koordinatuta eta lankidetzan jardun behar dute, eta modu berean aritu behar dira irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenekin eta ekimen pribatuarekin ere. Halaber, printzipio hau ere ezarri da: gizarte zerbitzuen arloan irabazi asmorik gabeko ekimena sustatzea, batez ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman.

Entre los principios por los que se debe guiar el sistema de servicios sociales, destacan, además de los de universalidad, igualdad y equidad, proximidad, prevención, integración y normalización, atención personalizada e integral y continuidad de la atención, carácter interdisciplinar de las intervenciones, participación ciudadana y calidad, los de coordinación y cooperación, en virtud de los cuales, las administraciones públicas, actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, así como con la iniciativa social sin ánimo de lucro, y asimismo con el resto de la iniciativa privada. Igualmente establece como principio la promoción de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales, y en particular en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Zehazki, 12/2008 Legearen 69. artikuluan ezarri denaren arabera, EAEko herri administrazioek hitzarmenak egin ditzakete gizarte ekimeneko irabazteko asmorik gabeko erakundeekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko prestazioak eta zerbitzuak egiteko ondoko kasu hauetan: erakundearen jarduera edo prestazioa edo zerbitzua berezia, presazkoa edo berritzailea eta esperimentala izanik, itunaren araubidea aplikatzea egokia ez denean (arrazoiak azaldu behar dira).

En este sentido, el artículo 69 de la Ley 12/2008, establece que las administraciones públicas vascas podrán establecer convenios con entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro para la provisión de prestaciones y servicios integrados en el catálogo de servicios sociales en aquellos supuestos en los que dada la singularidad de la actividad de la entidad o de la prestación o servicio del que se trate, su carácter urgente o su carácter innovador y experimental, aconsejen la no aplicación del régimen de concierto en los términos en los que el mismo se regule y así se motive.

12/2008 Legearen 6.1.c) artikuluaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio

De conformidad con el artículo 6.1.c) de la misma ley, corresponde a la Diputación

gizarte zerbitzuak, "*bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea*" bilatzen dutenak, ematea.

Foral de Bizkaia la prestación de servicios sociales encaminados a "*prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos*".

Halaber, berariaz dagokio lege horren 22. artikuluan jasotako gizarte zerbitzuen katalogoaren 2.2.3 (*gizarteratze-premiei erantzuteko zerbitzuari edo eguneko zentroak*) zenbakietan jasotako zerbitzuak ematea.

Asimismo, le corresponde específicamente, la provisión de los servicios recogidos en el apartado 2.2.3 (servicios o centros de día para atender necesidades de inclusión social) del Catálogo de Servicios Sociales recogido en el artículo 22.

III.- Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa (aurrerantzean, "*185/2015 Dekretua*" edo "*Zorroaren Dekretua*"), eta bere helburua, Gizarte Zerbitzuen katalogoa garatzea da, 12/2008 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren 23. artikuluan jasotako agindua betez.

III.- Que el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, por el que se aprueba la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales (en adelante, indistintamente, "*Decreto 185/2015*" o "*Decreto de cartera*") tiene como objeto el desarrollo del referido catálogo de servicios sociales, en cumplimiento del mandato contenido en el artículo 23 y en la disposición adicional primera de la Ley 12/2008.

185/2015 Dekretuaren 5.3. artikuluaren arabera, foru aldundiek eskumenak izango dituzte katalogoaren bigarren mailako arreta zerbitzuak emateko. Zerbitzu horien artean, hauek agertzen dira Dekretuaren I. eranskinean:

- Gizarte bazterketako beharrei erantzuteko zerbitzuak edo eguneko zentroak, horren erregulazioa 2.2.3 fitxan jasota dagoelarik.

En virtud del artículo 5.3 del citado Decreto 185/2015 las diputaciones forales serán competentes para la provisión de los servicios de atención secundaria del catálogo. Entre dichos servicios figuran en el Anexo I del mencionado Decreto los siguientes:

- Servicios o centros de día para atender necesidades de inclusión social, cuya regulación se contiene en la ficha 2.2.3.

Aurrekoarekin jarraituz, maiatzaren 21eko 59/2019 Foru Dekretuak gizarteratzearen alorrean espezializatutako esku-hartze prozedura arautzen du; bertan, gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horren arriskuan dauden pertsonei arreta emateko oinarrizko ildoak zehazten dira.

En desarrollo de lo anterior, el Decreto Foral 59/2019, de 21 de mayo, regula el procedimiento de intervención especializado en materia de inclusión social, en el que se detallan las líneas básicas de la atención a las personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma.

IV.- Bestalde, Euskadiko Hirugarren

IV.- Que por su parte, la Ley 6/2016, de 12

Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak, 10. artikuluko 1. zenbakiko b letran, Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeek erantzukizun publikoko zerbitzuak edo, pixkanaka, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa finkatzen ari direnak hornitzen (diseinatzen, ematen, ebaluatzen eta hobetzen) parte hartuko dutela xedatzen du.

Halaber, 12.3. artikuluak, erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko lankidetzari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, laguntza hori jarduerek izaera berezia dutenean bermatuko da. Izaera bereziko jardueratzat joko dira honako kasu hauetan:

a) Antolaketan ezaugarri hauek betetzen badituzte: lurralde eta kolektibo bati lotuta egotea, hartzaileen parte-hartzea (erakundearen gobernuan barne), balizko etekinak erakundearen misiorako berriz inbertitzea eta erantzukizun publikoko zerbitzuak emateaz gain, interes orokorreko beste gizarte jarduera batzuetan parte hartzea.

b) Esku-hartzearen ezaugarriek erantzukizun publikoko zerbitzuen balioa handitzen badute, hau da, pertsonei eta familiei arreta pertsonalizatua eta integrala (hainbat zerbitzu konbinatuz eta laguntza sozialeko funtzioa bere gain hartuz, erantzukizun publikoko alor edo sistema bat baino gehiagokoa izan daitekeena) eskaintzen badiete. Hori ez ezik, arreta jarraitua egin beharko diete, bizitza osoan zehar hala beharko balute, beharren bilakaerari aurrea hartuz eta erantzunak berrituz.

c) Azkenik, 15. artikuluaren 3. zenbakiak, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko administrazio publikoen eta erakundeen arteko lankidetza eta elkarlana gauzatzeko baliabideei buruzkoak, ezarritakoaren arabera, 12.3. artikuluak zehaztutako

de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, en el apartado 1 de su artículo 10, letra b, establece la participación de las organizaciones del tercer sector social de Euskadi, en la provisión (diseño, prestación, evaluación y mejora) de servicios de responsabilidad pública o que se están consolidando, progresivamente, como servicios de responsabilidad pública.

Asimismo, el artículo 12.3, relativo a la cooperación en la provisión de servicios de responsabilidad pública, señala que dicha participación se garantizará cuando su actividad tenga un carácter singular, considerando que tal supuesto se produce:

a) Cuando presenten determinadas características como organización, vinculación a un territorio y colectivo, participación de las personas destinatarias incluso en el gobierno de la entidad, reinversión de cualquier eventual beneficio en su misión, combinación de la participación en la provisión de servicios de responsabilidad pública con otras actividades sociales de interés general.

b) Y cuando las características de su intervención añadan valor a la provisión de servicios de responsabilidad pública, ofreciendo a personas y familias una atención personalizada, integral (mediante la combinación de diferentes servicios y la asunción de una función de acompañamiento social, que pueden abarcar incluso más de un ámbito o sistema de responsabilidad pública) y continua e incluso, cuando resulte necesaria, a lo largo de la vida, anticipándose a la evolución de las necesidades e innovando en las respuestas.

c) Finalmente, el apartado 3 del artículo 15, relativo a los instrumentos para formalizar la cooperación y colaboración entre las administraciones públicas y las organizaciones del tercer sector social de Euskadi, establece que la cooperación

baldintzak betetzeagatik izaera bereziko jarduera duten erakundeekin batera erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko lankidetza hitzarmenen bidez formalizatuko da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritakoarekin bat etorriz.

V.- Hitzarmen hau sinatu duen erakunde laguntzailea irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, eta gizarteari laguntzea du helburu, besteak beste, baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzeko eta prestatzeko ekintza espezifikoak sustatzea.

Hortaz, Administrazio Publikoaren eta hirugarren gizarte sektoreko erakunde baten arteko hitzarmen bat da, 12/2008 Legean eta 185/2015 Dekretuan zehazturiko gizarte helburuak erdiestea bilatzen duena, hitzarmenean adierazitakoaren arabera; hitzarmen hau Administrazio Publikoaren eta zuzenbide pribatuko subjektu baten artean sinaturiko hitzarmenen tipologiaren barruan kokatzen da.

Arestian adierazi den bezala, erakunde kolaboratzailea irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, aurretik adierazitako gizarte xedea duena. Erakundea Euskadiko hirugarren gizarte sektorearen barne dago maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 2., 3. eta 4. artikuluekin bat eginez, baita Lege horren 12.3. artikuluan aurreikusitakoa betez ere, eta jarduera berezia gauzatzen duen erakundea da:

1. Erakunde gisa:

a) Lurraldeari eta kolektiboari lotuta dago (gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonak eta bakarrik dauden etorkinak).

b) Balizko etekinak elkartearen misiorako berriz inbertitzen ditu

para la provisión de servicios de responsabilidad pública con entidades con una actividad de carácter singular en los términos definidos en el artículo 12.3 se formalizará a través de convenios de conformidad con la Ley de Servicios Sociales.

V.- Que la entidad colaboradora firmante del presente convenio es una institución sin ánimo de lucro con una marcada orientación al servicio de la sociedad que tiene, entre otros, el objetivo de la promoción de acciones específicas de incorporación social y formación de colectivos en situación de exclusión o en riesgo de la misma.

Se trata por tanto, de un convenio entre una Administración Pública y una entidad del tercer sector social que busca la consecución de los fines sociales detallados en la Ley 12/2008 y en el Decreto 185/2015, enmarcándose el presente convenio dentro de la tipología de convenios firmados entre una Administración Pública y un sujeto de Derecho privado.

Como se ha indicado anteriormente, la entidad colaboradora es una institución sin ánimo de lucro, con el objeto social detallado anteriormente. La entidad forma parte del tercer sector social de Euskadi, de conformidad con lo previsto en los artículos 2, 3 y 4 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo y, de conformidad con lo previsto en el artículo 12.3 de la referida ley, y constituye también una entidad cuya actividad tiene un carácter singular:

1. Como organización:

a) Se encuentra vinculada a un territorio y colectivo (personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma y población inmigrante no acompañada).

b) Reinvierte cualquier eventual beneficio en su misión (en su caso,

(elkarte horren kasuan, figura juridikotik eratorriko betekizuna da).

ésta constituye una obligación derivada de su figura jurídica).

c) erantzukizun publikoko zerbitzuak emateaz gain, interes orokorreko beste jarduera batzuetan ere parte hartzen du.

c) combina la participación en la provisión de servicios de responsabilidad pública con otras actividades sociales de interés general.

2. Esku-hartzearen ezaugarriei dagokienez, erantzukizun publikoko zerbitzuen balioa handitzen du pertsonei egiten dien arretari esker; honelako arreta eskaintzen du:

a) pertsonalizatua, zerbitzuak egokituz, esku-hartzeak egokituz, zerbitzu berberaren barruan eta zerbitzu desberdinetatik bideratutako esku-hartzeen multzoa, pertsona eta familia bakoitzaren beharrizanetara eta bilakaerara egokituz

b) Integrala, hainbat zerbitzu konbinatuz eta laguntza sozialeko funtzioa bere gain hartuz; azken hori erantzukizun publikoko alor edo sistema bat baino gehiagokoa izan daitek

c) beharrizanen bilakaerara aurreratzen eta erantzunetan berritzen jarraitzen du

2. Y, por lo que respecta a las características de su intervención, añaden valor a la provisión de servicios de responsabilidad pública ofreciendo a personas una atención:

a) personalizada, adecuando los servicios, las intervenciones dentro de un mismo servicio y el conjunto de la intervención llevada a cabo, desde diferentes servicios, a las necesidades de cada persona y su evolución

b) integral, mediante la combinación de diferentes servicios y la asunción de una función de acompañamiento social que puede abarcar incluso más de un ámbito o sistema de responsabilidad pública.

c) continua, anticipándose a la evolución de las necesidades e innovando en las respuestas.

Azken finean, kasu honetan, eta modu berezian, antolaketaren eta bere esku-hartzearen ezaugarri guztiak betetzen dira, eta horiek ahalbidetzen dute erakunde baten jarduera izaera bereiziko jarduera izatea. Horrez gain, harremana dute Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzak sustatutako arretarako ereduarekin.

En definitiva, en este caso, y de manera especial, se cumplen todas y cada una de las características de la organización y de su intervención, que permiten caracterizar la actividad de una entidad como actividad de carácter singular y que guardan también relación con el modelo comunitario de atención impulsado desde la Dirección General de Inclusión Social.

Eta, horrenbestez, aipatutako zerbitzua emateko hitzarmena justifikatuta geratu

Y, por tanto, se justifica la formalización de un convenio para la provisión del servicio

da. Horren bidez, elkarteak foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuei, hitzarmen honek xede duen zerbitzua bezalakoei, erantsitako balioa aitortu, zaindu eta bultzatu nahi da, honako hauek osatutakoa: baliabideak beharretara moldatzea, hartzaileen parte-hartzea, gertutasuna, pertsonalizazioa, diziplina artekotasuna, arreta integrala eta jarraitua eta prebentzioa.

referido a efectos de reconocer, preservar, y potenciar, el valor añadido por la entidad a la provisión de servicios sociales de responsabilidad foral como el referido en este convenio, en términos de adaptación de los recursos a las necesidades, participación de las personas destinatarias, proximidad, personalización, interdisciplinariedad, integralidad y continuidad de la atención, y prevención.

VI.- Hitzarmen honen esparruan ezartzen den lotura juridikoaren xedea kontratu-jardueran sar daiteke. Hala ere, jarduera hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-esparrutik kanpo utziko litzateke, zehazki, 6.2. artikuluan eta berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian.

- 6.2. artikulua: *"Lege honen esparrutik kanpo gelditukо dira, bestalde, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren menpeko pertsona fisiko zein juridikoekin gauzatzen dituzten hitzarmenak; betiere, bere edukia lege honetan edo administrazioko arau berezietan arautako kontratuen esparruan jasota ez badago".*
- 49. xedapen gehigarria. Gizarte arloko zerbitzu publikoak emateko kontratuzko izaerarik gabeko tresnei buruzko autonomia erkidegoen araudia. *"Lege honetan ezarritakoa ez da oztopo autonomia erkidegoek, esleituta dituzten eskumenen egikaritzean, izaera sozialeko beharrak asetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko kontratuzko izaerarik gabeko tresnak artikulatuz arautu dezaten".*

VI.- Que el objeto de la relación jurídica que se establece en el marco del presente convenio es susceptible de encuadrarse en la actividad contractual. Sin embargo, esta actividad se excluiría del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, concretamente en su artículo 6.2 y la Disposición Adicional cuadragésimo novena.

- Artículo 6.2 *"Estarán también excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales."*
- Disposición adicional 49ª. Legislación de las Comunidades Autónomas relativa a instrumentos no contractuales para la prestación de servicios públicos de carácter social. *"Lo establecido en esta Ley no obsta para que las Comunidades Autónomas, en el ejercicio de las competencias que tienen atribuidas, legislen articulando instrumentos no contractuales para la prestación de servicios públicos destinados a satisfacer necesidades de carácter social."*

Zentzu horretan, hitzarmen honen xedea 12/2008 Legeko 69. artikuluan araututa egongo litzateke eta honako hau xedatzen du: *"EAEko herri administrazioek hitzarmenak egin ditzakete gizarte*

En este sentido, el objeto del presente convenio estaría regulado en el artículo 69 de la Ley 12/2008, que, conforme se ha indicado anteriormente, dispone lo siguiente: *"las administraciones públicas*

*ekimeneko irabazteko asmorik gabeko erakundeekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko prestazioak eta zerbitzuak egiteko ondoko kasu hauetan: erakundearen jarduera edo prestazioa edo zerbitzua berezia, presazkoa edo berritzailea eta esperimentala izanik, itunaren araubidea aplikatzea egokia ez denean (arrazoiak azaldu behar dira)".*

*vascas podrán establecer convenios con entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro para la provisión de prestaciones y servicios integrados en el catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales en aquellos supuestos en los que la singularidad de la actividad de la entidad o de la prestación o servicio del que se trate, su carácter urgente o su carácter innovador y experimental, aconsejen la no aplicación del régimen de concierto en los términos en los que el mismo se regule y así se motive".*

VII.- Bestalde, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartu zuenak, bosgarren xedapen gehigarriaren lehenengo idatz-zatian xedatu zuenaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beraren foru-erakunde autonomoek lankidetza-hitzarmenak (helburua zeinahi) egin ahal izango dituzte nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko Administrazio Orokorrarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, haien erakunde autonomoekin, sozietate publikoekin eta gainerako erakunde publikoekin, bai eta gizarte zerbitzuen arloan diharduten erakundeekin ere, beraien izaera juridikoa gorabehera.

VII.- Que, por otro lado, la Disposición Adicional Quinta, del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por la que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, dispone en su apartado primero que la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismos Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración cualquiera que sea su objeto, con entidades de derecho internacional público, la Administración General del Estado, la Seguridad Social, las Comunidades Autónomas, las entidades locales, los correspondientes organismos autónomos, las sociedades públicas, así como con las entidades que, independientemente de su naturaleza jurídica, tengan como objeto el ámbito de los servicios sociales.

Arestiko xedapena garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak, Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duenak eta Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bategina garatzen duenak, irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuak emandako idazkeran, 44. artikuluan eta hurrengoetan dioenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren foru erakunde autonomoek hitzarmenak egin ahalko dituzte zuzenbide publiko nahiz pribatuko pertsonekin, ordenamendu juridikoaren kontrakoak ez badira, transakziorik onartzen ez duten arloei buruzkoak ez badira eta haien xedea esleituta daukaten onura publikoa asetzea

En desarrollo de la disposición anterior, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, en redacción dada por el Decreto Foral 118/2018, de 4 de septiembre, señala en su artículo 44 y siguientes que la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos forales podrán celebrar convenios con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al ordenamiento jurídico ni versen sobre materias no susceptibles de transacción y tengan por objeto satisfacer el interés público que

bada, hura arautzen duen xedapenean aurreikusitako irismenarekin, ondorioekin eta araubide juridikoarekin bat eginez.

tienen encomendado, con el alcance, efectos y régimen jurídico específico que en cada caso prevea la disposición que lo regule.

VIII.- Aurreko ataletan adierazitakoa aintzat hartuz, bi entitateek lankidetzarako oinarriak ezarri nahi dituzte gizarte zerbitzuen hitzarmen bat sinatuz, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari dagokionez, honako honi jarraiki:

VIII.- Que teniendo en cuanto lo manifestado en los apartados precedentes, ambas entidades pretenden establecer las bases de cooperación, formalizando un convenio de servicios sociales de los contemplados en el artículo 69 y siguientes de la Ley de Servicios Sociales que se regirá conforme a las siguientes

## XEDAPENAK

## ESTIPULACIONES

### Lehenengoa.- Zerbitzuaren xedea eta definizioa.

### Primera.- Objeto y definición del servicio.

#### 1.1.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea **Bizkaiko Foru Aldundiaren** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta ASOCIACIÓN AMIGOS DEL ARTE-AMIARTE (aurrerantzean, *"erakunde laguntzailea"*) arteko lankidetza harremana ezartzea da, gizarte-bazterketako egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonei "*AMIARTE*" izeneko baliabidean arreta eskaintzeko.

#### 1.1.- Objeto del convenio.

El presente convenio tiene por objeto establecer las relaciones de colaboración entre la **Diputación Foral de Bizkaia**, Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y la entidad ASOCIACIÓN AMIGOS DEL ARTE-AMIARTE, (en adelante *"entidad colaboradora")*, para la atención a personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma en el dispositivo denominado "*AMIARTE*"

#### 1.2.- Hitzartutako programaren definizioa.

Hitzartutako programa oinarrizko sareko eguneko zerbitzu moduan definitzen da, gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonei zuzenduta dagoena; pertsona horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan finkatuta egon behar dute. Beraz, hurbileko ekipamendua eskaintzen du, malgua eta irekia eguneko arreta-ordu askotarikoarekin, honako helburu hauekin:

- Erabiltzaileari autonomia-mailarik handiena ematea.

#### 1.2.- Definición del programa convenido.

El programa convenido se define como un servicio de día de la red básica dirigido a personas en situación de exclusión social o riesgo de la misma, asentadas en el Territorio Histórico de Bizkaia, que, como tal, ofrece un equipamiento de proximidad, flexible y abierto durante un amplio abanico de horas de atención diurna, con los siguientes objetivos:

- Dotar a la persona usuaria del

- Gizarteratzen laguntzea.
- Erabiltzaile horren garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak sustatzea.
- Ahalegina egitea bere ohiko ingurunetik aldendu ez dadin.

máximo grado de autonomía.

- Favorecer su inclusión social.
- Potenciar su desarrollo personal, sus capacidades, habilidades y experiencias.
- Procurar que no se desligue de su entorno habitual.

Bigarrena.- Kokapena. Prestazioak.

2.1. Zerbitzuaren kokapena.

Hitzarmeneko zerbitzua eta horretatik eratorritako prestazio teknikoak AMIARTE bitartez egikarituko dira.

Zerbitzua Bilbon kokatua egongo da, Gordóniz kalea, 41 (ezkerreko lonja)

2.2 Prestazio teknikoak, osagarriak eta lagungarriak

Erakunde laguntzaileak, erabiltzaileei, honako prestazioak emango dizkie, horien beharren arabera eta arretarako plan pertsonalizatuan ezarritakoarekin bat eginez:

2..2.1. - Prestazio teknikoak

- Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea,
  - Hezkuntza-arloko esku-hartzea edo gizarte- eta hezkuntza-arlokoa: horren bitartez, erabiltzaileek, hezkuntza jasotzeko profesional batekin harremanetan jarriz, jarrera eta ohitura desegokiak aldatzen dituzte, eta bereziki taldeko edo laneko testuingurutan gizarteratzeko eta modu autonomoan moldatzeko egokiak diren jarrera eta ohiturak jasotzen dituzte.

Segunda .- Ubicación. Prestaciones.

2.1. Ubicación del servicio.

El servicio objeto del convenio y las prestaciones técnicas derivadas del mismo se proveerán a través del dispositivo denominado AMIARTE

Se ubica en Bilbao, Gordoniz 41, lonja izquierda

2.2 Prestaciones técnicas, complementarias y accesorias

La entidad colaboradora se compromete a proporcionar a las personas usuarias, con base en sus necesidades y de conformidad con lo establecido en su respectivo plan de atención personalizada, las siguientes prestaciones:

2.2.1. - Prestaciones técnicas

- Intervención socioeducativa y psicosocial, que comprenderá:
  - Intervención educativa o socioeducativa: se propiciará que las personas usuarias, mediante la relación educativa con una/un profesional, modifiquen actitudes y hábitos inadecuados y adquieren actitudes y hábitos adecuados para el desenvolvimiento autónomo e integración social en contextos grupales y laborales, principalmente.

- **Arlo okupazionaleko edo lan-aurreko esku-hartzea:** prestazio bat da, eta horren bitartez, erabiltzaileek, gaikuntza-jardueretan parte hartuz, modu autonomoan moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarri diren jarrerak, jakintzak eta trebetasunak jasotzen dituzte, lan-eremuan ere aplika daitezkeenak Gaikuntza jardueren bitartez, lan-eremukoak izaki eremu horretara mugatzen ez diren egokitze-trebetasunak garatu eta hobetu nahi dira, autonomia pertsonalaren garapena eta erabiltzaileak gizarteratzea errazten duten aurrerapenak bilatuz.

- **Intervención ocupacional o prelaboral:** prestación en virtud de la cual las personas usuarias, mediante la participación en actividades de capacitación, adquieren o desarrollan actitudes, conocimientos y habilidades útiles para su desenvolvimiento autónomo e integración social, susceptibles, en su caso, de ser aplicadas en el ámbito laboral. Las actividades de capacitación persiguen el desarrollo y mejora de habilidades adaptativas relacionadas con el ámbito laboral pero no son exclusivas del mismo, buscando el desarrollo de la autonomía personal y aquellos progresos que favorezcan la inclusión integral de las personas.

- Jarraipen-balioespena

- Valoración de seguimiento.

- Informazioa-orientazioa.

- Información-Orientación.

2.2.2.- Erakunde laguntzaileak arretarako programa indibidualetan gizarte eta hezkuntza arreta emateko konpromisoa hartzen du, balorazio eta diagnostiko espezializatuan detektatutako gizarte beharrekin eta arreta pertsonalizatuko planetan zehaztutako helburuekin bat eginez.

2.2.2.- La entidad colaboradora se compromete a sustentar la atención socio-educativa en programas individuales de atención, conforme a las necesidades sociales detectadas en la valoración y diagnóstico especializado y a los objetivos marcados por los respectivos planes de atención personalizada.

## Hirugarrena.- Hitzarmenaren zerbitzuari lotutako giza baliabideak eta arretarako ordutegia.

## Tercera. - Recursos humanos vinculados al servicio objeto del convenio y horario de atención.

### 3.1. Giza baliabideak

### 3.1. Recursos humanos

Programak diziplina anitzeko talde bat izango du erabiltzaileei arreta emateko eta euren beharrizanetarako egokiak diren prestazioak emateko.

El programa contará con un equipo multidisciplinar para la atención de las personas usuarias y la provisión a las mismas de las prestaciones adecuadas a sus necesidades.

Gainera, aurretik deskribatutako prestazio teknikoak emateko, beharrezkoa izango da unibertsitateko goi-mailako titulazioa eta lanbide prestakuntzakoa izatea, gizarte esku-hartzearekin lotuta, tailerretako

